**ASTELEHENA, 2023KO MAIATZAK 29**
**Argitaratzailea:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013
**Koordinatzailea:** Rebeka Calvo Gonzalez
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizalete
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95.
**E-posta:** ataria@ataria.eus
**Publizitatea:** 661 678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
**Kirolak:** 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
**Bezero arreta zerbitzua:** 943 30 43 46

Ataria.eus

**ATARIA IRRATIA** 107.6 FM

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**
Tolosaldeko gizarte eragileak

# Herritar
# dute eure




EH Bildu
EAJ
PSE-EE
Elkarrekin Po
Herri platafo

ataria

**ASTELEHENA**
2023/05/29
11. urtea, 1.794. zenbakia
107,6 fm
**Ataria.eus**
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €

# rek egin
# en hautua



# Euskal Herria Bilduk irabazi ditu alkatetza gehien Tolosaldean

## EH Bilduk Tolosaldeko 17 herritan bereganatu du alkatetza, tartean, Tolosan, EAJ-k galduta; PSE-EE-k Larraul mantendu du eta herri zerrendak 10 herritan izan dira garaile

| HERRIA | EH BILDU | | | | EAJ | | | | PSE-EE | | | | PP | | | | ELKARREKIN PODEMOS | | | | HERRI PLATAFORMAK | | | | | | | | ZURIAK | | BALIOG. | | ABSTENTZIOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | | 2019 | | 2023 | | 2019 | | 2023 | | 2019 | | 2023 | | 2019 | | 2023 | | 2019 | | 2023 | | 2023 | | 2019 | | 2019 | | 2023 | 2019 | 2023 | 2019 | 2023 | 2019 |
| B: BOTOAK H: HAUTETSIAK | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | B | H | | | | | % | % |
| Abaltzisketa | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 132[1] | 7 | - | | 152[1] | 7 | - | | 14 | 20 | 6 | 5 | 40,39 | 30,04 |
| Aduna | 267 | 7 | 230 | 7 | 15 | 0 | - | | - | | - | | 1 | 0 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 11 | 17 | 1 | 13 | 20,27 | 26,97 |
| Albiztur | - | | - | | - | | - | | 13 | 0 | 2 | 0 | 0 | 0 | - | | - | | - | | 119[2] | 7 | - | | 145[2] | 7 | - | | 7 | 2 | 0 | 1 | 42,08 | 34,50 |
| Alegia | 448 | 4 | 481 | 5 | - | | - | | 15 | 0 | 14 | 0 | - | | - | | - | | - | | 462[3] | 5 | - | | 451[3] | 4 | - | | 18 | 9 | 6 | 9 | 25,69 | 26,46 |
| Alkiza | - | | - | | - | | - | | 3 | 0 | 4 | 0 | 0 | 0 | - | | - | | - | | 128[4] | 7 | - | | 130[4] | 7 | - | | 16 | 37 | 8 | 7 | 40,38 | 31,01 |
| Altzo | 191 | 7 | 205 | 7 | - | | - | | - | | - | | 2 | 0 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 14 | 17 | 23 | 12 | 34,28 | 28,88 |
| Amasa-Villabona | 1468 | 8 | 1517 | 7 | 665 | 4 | 1058 | 5 | 208 | 1 | 199 | 1 | 22 | 0 | - | | 62 | 0 | 149 | 0 | - | | - | | - | | - | | 50 | 45 | 36 | 22 | 41,92 | 31,28 |
| Amezketa | 362 | 5 | 351 | 5 | - | | - | | 5 | 0 | 4 | 0 | 0 | 0 | - | | - | | - | | 136[5] | 2 | - | | 167[5] | 2 | - | | 17 | 11 | 5 | 1 | 28,76 | 24,26 |
| Anoeta | 592 | 7 | 585 | 6 | 313 | 4 | 423 | 5 | 38 | 0 | 40 | 0 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 35 | 22 | 13 | 18 | 36,14 | 29,20 |
| Asteasu | - | | - | | 126 | 1 | 158 | 2 | 16 | 0 | 19 | 0 | - | | - | | - | | - | | 511[6] | 8 | - | | 499[6] | 7 | - | | 7 | 30 | 8 | 3 | 43,96 | 38,77 |
| Baliarrain | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 70[7] | 5 | - | | 62[7] | 5 | - | | 0 | 1 | 2 | 0 | 28,00 | 30,00 |
| Belauntza | - | | - | | - | | - | | 6 | 0 | 3 | 0 | - | | - | | - | | - | | 107[8] | 7 | - | | 82[8] | 4 | 46[9] | 1 | 11 | 4 | 2 | 12 | 38,53 | 21,81 |
| Berastegi | 454 | 7 | 398 | 6 | 130 | 2 | - | | 6 | 0 | 6 | 0 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 254[10] | 3 | - | | 21 | 12 | 5 | 6 | 30,31 | 20,94 |
| Berrobi | - | | - | | - | | - | | 50 | 1 | 30 | 7 | - | | - | | - | | - | | 226[9] | 6 | - | | - | | - | | 9 | 218 | 6 | 10 | 33,86 | 41,89 |
| Bidania-Goiatz | - | | 169 | 4 | - | | - | | 5 | 0 | 5 | 0 | - | | - | | - | | - | | 91[10] | 2 | 154[11] | 5 | 110[11] | 3 | - | | 19 | 2 | 12 | 1 | 32,94 | 26,79 |
| Elduain | 56 | 5 | 92 | 5 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 13 | 19 | 7 | 3 | 48,35 | 38,04 |
| Gaztelu | 44 | 5 | 45 | 5 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 18 | 22 | 13 | 13 | 31,20 | 31,62 |
| Hernialde | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 117[12] | 7 | - | | 134[12] | 7 | - | | 9 | 17 | 7 | 3 | 49,04 | 35,02 |
| Ibarra | 993 | 7 | 1007 | 6 | 517 | 3 | 798 | 4 | 154 | 1 | 191 | 1 | 13 | 0 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 37 | 40 | 20 | 33 | 44,58 | 34,69 |
| Ikaztegieta | 154 | 5 | 150 | 4 | 75 | 2 | 115 | 3 | 2 | 0 | 3 | 0 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 4 | 0 | 2 | 5 | 32,86 | 25,00 |
| Irura | 435 | 6 | 458 | 5 | 249 | 3 | 350 | 4 | 32 | 0 | 39 | 0 | 7 | 0 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 15 | 17 | 9 | 4 | 41,73 | 31,11 |
| Larraul | - | | - | | 19 | 2 | - | | 55 | 5 | 19 | 7 | 2 | 0 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 21 | 95 | 8 | 1 | 44,73 | 38,17 |
| Leaburu-Txarama | 118 | 5 | 117 | 4 | 49 | 2 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 77[13] | 3 | - | | 6 | 8 | 7 | 4 | 36,61 | 24,54 |
| Lizartza | 247 | 7 | 296 | 7 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 33[14] | 0 | - | | 29 | 15 | 14 | 6 | 38,81 | 24,08 |
| Orendain | 82 | 5 | 90 | 5 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 12 | 30 | 9 | 6 | 26,31 | 19,23 |
| Orexa | 52 | 5 | 75 | 5 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 3 | 1 | 3 | 0 | 16,27 | 13,64 |
| Tolosa | 4655 | 9 | 4249 | 8 | 3464 | 7 | 4464 | 8 | 711 | 1 | 742 | 1 | 178 | 0 | 214 | 0 | 291 | 0 | 520 | 0 | - | | - | | - | | - | | 170 | 87 | 105 | 76 | 38,93 | 31,31 |
| Zizurkil | 658 | 6 | 825 | 6 | 323 | 3 | 388 | 3 | 244 | 2 | 267 | 2 | 19 | 0 | - | | - | | - | | - | | - | | - | | - | | 46 | 29 | 16 | 13 | 41,82 | 32,60 |
| GUZTIRA | 11276 | 110 | 11340 | 107 | 5945 | 33 | 7.754 | 34 | 1.563 | 11 | 1.587 | 19 | 244 | 0 | 214 | 0 | 353 | 0 | 669 | 0 | 2.099 | 63 | 154 | 5 | 2.296 | 59 | 46 | 1 | 632 | 825 | 353 | 287 | 39,14 | 31,04 |
| 2023: HERRI PLATAFORMAK | (1) Herrigintza; (2) Albiztur Bizirik; (3) Aurrera Alegia; (4) Alkizako Abertzale Ezkertiarrak; (5) Amezketa Etorkizun; (6) Asteasu Batuz; (7) Auzolanean Bizirik; (8) Denok Bat; (9) Berrobi Bizi; (10) Garai Berriak; (11) Ibiri; (12) Herniope; | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 2019: HERRI PLATAFORMAK | (1) Herrigintza; (2) Albiztur Bizituz; (3) Aurrera Alegia; (4) Alkizako Abertzale Ezkertiarrak; (5) Amezketa Etorkizun; (6) Asteasu Batuz; (7) Auzolanean Bizirik; (8) Denok Bat; (9) Belauntzako Herritarrak; (10) Beasti Bizi; (11) Garai Berriak; (12) Herniope; (13) Bide Berriak; (14) EQUO; | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

*Espainiako Barne Ministerioko datu ofizialak erabili dira.

**N. Roldan de Aranguiz**

Udal hauteskundeen emaitzak jaso berritan eta alkatetza kopuruari erreparatuta, EH Bilduk eskuratu ditu gobernatzeko herri gehien eskualdean. Izan ere, guztira, 17 herritan hartuko du aginte makila alderdi abertzaleak –zerrenda gehien aurkeztu dituen alderdia da EH Bildu, 18–.

2019ko udal hauteskundeekin alderaketa eginda, EH Bilduk orduan 18 alkatetza bereganatu zituen. Alegian EH Bilduk galdu du aginte makila, Aurrera Alegia zerrendaren alde. Bestalde, kontuan izan beharra dago, orduan baino herri bat gutxiago izan duela aukeran oraingoan; izan ere, Bidania-Goiatzen EH Bilduk ez du zerrendarik aurkeztu eta herri plataformak egon dira aukeragai bertan. Bidania-Goiatzen hamabi urtez EH Bildu agintean egon eta gero beraz, Ibiri taldeak hartuko du agintea.

Boto kopuruari erreparatuta, EH Bilduk 2019an 11.340 boto jaso zituen eta atzo berriz, 11.276 boto; hau da, 64 boto behera egin du. Zinegotzi kopuruan ere alderaketa izan du EH Bilduk. 2019an 107 eserleku eskuratu zituen eta atzoko hauteskundeen emaitzek 108 eserleku eman zizkioten.

EAJ izan da Tolosaldean bigarren alderdi bozkatuena. 2019an 7.754 boto lortu zituen eta atzo, berriz, 5.945 boto izan ziren alderdi jeltzalearentzat, 1.809 boto behera egin zuen, beraz. Aipatu beharra dago, oraingoan, EAJ-k duela lau urte baino zerrenda gehiago aurkeztu dituela. Berastegin, Adunan, Leaburu-Txaraman eta Larraulen EAJ-ren aldekoek papeleta bazuten herrian aukeran. Baina azkenik ez du alkatetzarik lortu alderdi jeltzaleak.

2019an alkatetza bakarra eskuratu zuen EAJ-k: Tolosa. Atzoko gauak berriz, eskualdeko hiriburua EH Bildu alderdiari eman zion, Andu Martinez de Rituerto buru.

Tolosaldeko eserlekuei begira jarriz gero, 2019an EAJ-k 34 zinegotzi eskuratu zituen. Oraingoan, 33 zinegotzi izango ditu eskualdean.

Orotara, Tolosaldean 222 zinegotzi postu bete beharko dira ekainaren 17a bitarte. 2019ko kopuruarekin alderatuta, bi zinegotzi gehiago izango ditu eskualdeak jardunean. Izan ere, Belauntzan guztira bost zinegotzi izatetik zazpi zinegotzi izatera pasako dira.

Herri zerrendek presentzia handia izango dute. Herri plataformek guztira 68 zinegotzi izango dituzte eta hamar herrietan aginte makila eurena izango da.

PSE-EE alderdiak zituen bi alkatetzatik –Berrobi eta Larraul– bakarra mantendu du: Larraul. EAJ-k herrian zerrenda aurkeztu du baina Maite Arana sozialistaren lana berretsi dute herritarrek. Berrobin, ordea, Berrobi Bizi plataforma izan da zerrendarik bozkatuena. Honenbestez, sei zinegotzi izango ditu aurrerantzean eta PSE-EEk zinegotzi bakarra mantenduko du Berrobin. Eskualdean, sozialistek jasotako boto kopuruak zertxobait behera egin du udal hauteskundeetan. 1.587 bototik 1.563ra pasa da eta.

### ABSTENTZIOA AUKERA

2019ko errolda 36.235 izan zen eta 2023an 37.063 izan da. Beraz, 828 pertsona gehiago deituta zeuden bozkatzera joateko. 2019an 23.876 boto zenbatu ziren guztira eta atzoko gauean berriz 21.634. Hau da, 2.242 gutxiago. Boto baliogabeak 287tik 353ra pasa dira aurten eta zuriak 825etik 632ra.

Abstentzioa berriz, %31,04koa izan zen eta atzoko udal hauteskundeen bozketan %39,14koa izan da. Beraz, abstentzioak gora egin du nabarmen, herriz herri. zortzi puntuan.

### GENEROARI BEGIRA

10 emakumezko eta 18 gizonezko alkate aurreikusten dira 2023-2027 legealdirako Tolosaldean. Aurreko legealdiarekin alderatuta beraz, kopuru berdinetan mantenduko dira emakume-gizon agintariak.

### ALKATE BETERANOAK

Eskualdeak baditu bi alkate beterano. Ekainaren 17tik aurrera, laugarren legealdiari ekingo diote Ion Zubizarreta Aldaiak, Abaltzisketan, eta Pili Legarra Kortajarenak, Asteasun.

Legealdi luzeak atzean utzita, alkate jardunari egur esan diote hainbat politikarik, euren burua berriro aurkeztu ez dutelako zerrendaburu gisa. Josu Amilibiak (EH Bildu) hiru agintaldi bete ditu Adunan eta testigua Kristina Rodriguezek hartuko du. Amezketan ere hiru agintaldi bete ditu Iñaki Amundarainek (EH Bildu) eta Mikel Arteagak ekingo dio aurrerantzean ardurari. Anoetan, beste horrenbeste denbora egon da karguan Pello Estanga (EH Bildu); orain, Egoitz Luisak emango dio jarraipena egindako lanari. Eta bi legealdiko lana atzean utzita, hiru emakumek alkatetza utziko dute: Amaia Azkuek (EH Bildu), Berastegin; Bakarne Otegik (EH Bildu), Ikaztegietan eta Olatz Peonek (EAJ) Tolosan.






# 22.613

**BOTOAK**

Eskualdeko 37.063 herritar zeuden deituak udal hauteskundeetan parte hartzera, eta horietatik 22.613k eman du botoa. Abstentzioa %38,99koa izan da, aurreko deialdian baino 7,94 puntu gehiago.

## ESKUALDEKO ARGAZKIA

**BERDE ARGIA.** EH Bildu
**BERDE ILUNA.** EAJ
**BELTZA.** Besteak
**GORRIA.** PSE-EE

* Datuak eskrutinioaren %99,73arekin osatu dira.



# Zortzi urte eta gero, alkatetza lortu du EH Bilduk Tolosan

## Andu Martinez de Rituerto izango da Tolosako alkate, garaipen argia lortuz; EH Bilduk bederatzi zinegotzi izango ditu, EAJ-k zazpi zinegotzi eta PSE-EE-k zinegotzi bat

**E. Maiz**

EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak Tolosan eta bederatzi zinegotzi lortuz, alkatetza eskuratu du. Andu Martinez de Rituerto izango da alkate berria. Botoetan gora egin du koalizioak aurreko hauteskundeekin alderatuta, eta 4.655 boto eskuratu ditu, orain lau urte baino 406 boto gehiago.

EAJ-k alkatetza galdu du, eta zazpi zinegotzi lortu ditu, 3.464 boto lortuz, aurrekoan baino mila gutxiago. PSE-EE-k bere zinegotzia mantendu du, 710 boto eskuratuz, aurrekoan baino 32 gutxiago. Abstentzioa, berriz, %38,93koa izan da, 2019an baino 7,62 puntu gehiago.

**«EZ GENITUEN ESPERO»**

EH Bildu koalizioak Zerkausian ospatu zuen garaipena. «Helburua hau zen, eta bagenekien zaila izango zela, baina espero genuen emaitza ona izatea», kontatu zuen hurrengo lau urteetan Tolosako alkate izango den Martinez de Rituertok. Lortu dituzten emaitzak ez zituztela espero aitortu zuen.

«Jendeak uste dut egin dugun oposizio eraikitzailea eta hainbat gai giltzarritan izan dugun jarrera saritu duela», esan zuen. «Auzo guztietara» gerturatu direla nabarmendu zuen, eta herritarrak «entzun» dituztela: «herriak hori baloratu du». «Aldea handia izan da, eta hainbat gairen inguruko zigor botoa ere izan da», zehaztu zuen; «aldebakartasuna» eta «gardentasunik gabe aritzea» aipatu zituen emaitzen irakurketa egitean.

Herritarrei zuzendu zitzaien Martinez de Rituerto, eta helburua, «herria herritarrekin batera kudeatzea» duela esan zuen. «Alkatetza tresna bat da, eta gure asmoa ahal den neurrian erabakiak herritarrekin batera hartzea da, eta aurrera egitea».



Tolosako EH Bildu koalizioak Zerkausian egin zuen emaitzen jarraipena, eta garaipenaren ospakizuna. J. ARTUTXA

Bestalde, Xarles Iturbe EAJ alderdiko alkategaiak esan zuen ez zirela espero zituzten emaitzak . EH Bilduk «garaipen argia» lortu duela aitortu zuen Iturbek, eta eskerrak eman zizkien «guregan konfiantza jarri duten 3.500 pertsonei».

«Herriak jarri gaitu beste leku batean, eta bihar ere lanean jarraitu besterik ez dago», esan zuen emaitza jakin bezain pronto, Batzokian.

### UDAL HAUTESKUNDEAK

| | EH BILDU | EAJ | PSE-EE | ELKARREKIN PODEMOS | PP | ZURIAK | BALIOGABEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Alde Zaharra** | 1.919 | 1.067 | 288 | 133 | 49 | 68 | 43 |
| **Jubilatuak** | 688 | 851 | 101 | 45 | 49 | 14 | 16 |
| **Kultur etxea** | 622 | 535 | 103 | 25 | 30 | 26 | 21 |
| **Berazubi** | 616 | 456 | 88 | 38 | 15 | 28 | 16 |
| **Amarotz** | 294 | 205 | 66 | 12 | 7 | 4 | 9 |
| **Izaskun auzoa*** | 516 | 350 | 64 | 38 | 22 | 11 | 7 |
| **GUZTIRA** | **4.655** | **3.464** | **711** | **291** | **178** | **170** | **105** |

* Emaitza orokorrak zuzenak dira. Aldiz, auzoz auzoko datuak ezin izan dira guztiz zehaztu.

### HAUTETSIAK



**ANDU MARTINEZ DE RITUERTO**
EH BILDU



**ESTI KORTAJARENA**
EH BILDU



**GOIURI EZEIZA**
EH BILDU



**ANDER FIGUERIDO**
EH BILDU



**JOSUNE SANZ**
EH BILDU



**AITOR AGIRRESAROBE**
EH BILDU



**KRISTINA PELAEZ**
EH BILDU



**AITZOL GARCIA**
EH BILDU



**GARBIÑE MARZOL**
EH BILDU



**XARLES ITURBE**
EAJ



**BIOTXA AGIRRE**
EAJ



**LEIRE ZUBELDIA**
EAJ



**XABIER BALERDI**
EAJ



**AINHOA DOMINGUEZ**
EAJ



**PATXI AMANTEGI**
EAJ



**IKER USON**
EAJ



**JOSE MARIA VILLANUEVA**
PSE-EE

# Maite Amenabarrek eskuratu du Zizurkilgo alkatetza EH Bildurekin

## Zizurkilen sei zinegotzi eskuratu ditu EH Bilduk, duela lau urte bezala ; EAJk hiru zinegotzi izango ditu hurrengo legealdian eta PSE-EEk bi zinegotzi mantenduko ditu

**N. Roldan de Aranguiz**


Atzo eguerdiko une bat; Zizurkilen, herritarrek P.M.Otaño eskolan kokaturiko hauteslekuan botoa eman zuten. N.R.A.

EH Bildu zerrendarik bozkatuena izan da Zizurkilen, 658 botorekin. Bigarren zerrenda bozkatuena EAJrena izan da 323 botorekin. PSE-EEk 244 boto lortu ditu eta PPk 19.

Alkatetzak aurpegi berria izango du datozen lau urteetan Zizurkilen, baina alderdi berdinak jarraituko du herriaren gidaritzan. Azken lau urteetan Iker Urruzolak betetako papera egotziko zaio aurrerantzean Maite Amenabar Alkortari, EH Bilduren zerrendaburuari. Amenabarri hala ere, ez zaio arrotza egingo udalgintzako lana; izan ere, azken zortzi urteak alkateorde gisa lanean aritu da eta horrela gogoan izan zuen kanpaina amaierako ekitaldian: «Udala ezagutzeko balio izan didate».

Euskal Herria Bilduk guztira sei zinegotzi izango ditu 2023-2027 legealdian: Maite Amenabar Alkorta, Edurne Mendizabal Lasa, Joxe Maria Luengo Zapirain, Arkaitz Zaldua Jauregi, Xabier Pellejero Saralegi eta Xabat Oiarzabal Azketa. Orain arteko alkateak, Iker Urruzolak, zerrendaren hamargarren postuan egonda beraz, zuzenean ez du jarraituko herriaren nondik norako erabakietan parte hartzen. Edurne Mendizabal eta Arkaitz Zaldua izango dira EH Bilduren aurpegi berriak. Aurpegi berriak eta izaera gaztea eskainiko diote bi zinegotziek EH Bilduri.

Maite Amenabar pozik eta oso hunkituta azaldu zen atzo gauean emaitzen berri izan berritan: «Gehiengo osoa berretsi da. Azpimarratzekoa da herritarrek berriz ere eman diguten babesa. Hamabi urteren ondoren alkatetzan EH Bilduk jarraitzea nahi duela argi utzi du herriak. Oso pozik gaude. Bagenekien legealdi zail honen ostean botoak jaitsi egingo zirela eta emaitza hauen balorazioa oso-oso ona da, oso baikorra». Hurrengo lau urteei begira ere jarri zen Maite Amenabar: «Lan egitea tokatzen zaigu, herritar gehiengoari konbentzitzen jarraitzeko». Honela eskerrak emateko aukera probestu nahi izan zuen hauteskundeen emaitza ezagutu berritan: «Eskerrik asko babesa eman didaten herritar guztiei eta lanera». «Egingo dugu. Aupa Zizurkil», hunkitu batekin amaitu zuen esker mezua.

### OPOSIZIO LANA

Oposizio lana EAJ eta PSE-EE alderdiena izango da. Atzoko datuak eskuan, EAJk orain arte zituen hiru zinegotziak mantenduko ditu 65 boto galdu ostean. Maria Jesus Zelaiarekin, jeltzaleen zerrendaburuarekin batera, Jokin Garate Pujol eta Idoia Yeregi Telleria izango dira. Zelaia aurreko legealdi erdian batu zen Zizurkilgo EAJren lanera eta lan horri jarraipena eman ahal izango dio 2023-2027an ere. Garate eta Yeregi lehenengoz ekingo diote udalgintzako lanari Zizurkilen.

PSE-EEk duela lau urte izandako boto bikoizketari eutsi dio Azken udal hauteskundeetan sozialistek 267 boto eskuratu zituzten Zizurkilen eta atzoko boto zenbaketak 244 botoko emaitza eman zien. Hau da, 23 boto behera egin du. Azken legealdian egindako oposizio lanarekin jarraituko dute beraz, hurrengo lau urteetan ere, Josean Sanchez Almarazek eta Conchi Fernandez Osesek.

Josean Sanchez PSE-EEk Zizurkilen izandako boto kopuruaren bilakaeraz hitz egin zuen atzo gauean: «Balorazio gazi-gozoa. Emaitzak berretsi ditugu baina ez da guk nahi adinako partaidetzarik izan. Onartu beharra dago eta lanean jarraitu beharra dago. Emandako botoekin lanean jarraituko dugu Zizurkilen».

### BOTO ZURI ETA BALIOGABEAK

Boto zuri eta baliogabeei erreparatuta, udal hauteskundeek ondorengo emaitzak utzi zituzten Zizurkilen. Boto zuriak 46 izan ziren eta boto baliogabeak berriz 16 izan ziren.

Abstentzioari begiratuz gero, %41,82an kokatu dela esan beharra dago. Abstentzio datu altua Zizurkilgoa.

### UDAL HAUTESKUNDEAK

| | |
|---|---|
| **EH BIldu** | 658 |
| **EAJ** | 323 |
| **PSE-EE** | 244 |
| **PP** | 19 |
| **ZURIAK** | 46 |
| **BALIOGABEAK** | 16 |

### HAUTETSIAK


**MAITE AMENABAR**
EH BILDU


**EDURNE MENDIZABAL**
EH BILDU


**JOXE MARI LUENGO**
EH BILDU


**ARKAITZ ZALDUA**
EH BILDU


**XABIER PELLEJERO**
EH BILDU


**XABAT OIARZABAL**
EH BILDU


**MARIA JESUS ZELAIA**
EAJ


**JOKIN GARATE**
EAJ


**IDOIA YEREGI**
EAJ


**JOSEAN SANCHEZ**
PSE-EE


**CONCHI FERNANDEZ**
PSE-EE

## Iñaki Orbegozok errepikatuko du agintaldia Albizturren

Albiztur Bizirik taldeak 119 boto eskuratuta, alkatetza berretsi du; PSE-EEk eta PPk ez dute zinegotzirik lortu

**I. S. A.** Albiztur

Aldaketarik ez da izango Albizturko Udalean. Albiztur Bizirik taldeak irabazi ditu udal hauteskundeak, eta azken lau urteetan alkate izan den Iñaki Orbegozok jarraituko du alkatetzan datorren agintaldian ere.

Albiztur Bizirik taldeaz gain, PSE-EEk eta PPk ere aurkeztu dituzte zerrendak udal hauteskundeetarako. Ez dute zinegotzirik lortu eta herri plataformako kideak izango dira udal gobernua osatuko dutenak. Orbegozorekin batera, Mikel Galarza, Alazne Urkizu, Oier Aramendi, Ekiñe Aizpurua, Martin Urdangarin eta Sabier Urkizu izango dira zinegotziak.

Denera, 119 boto eskuratu ditu Albiztur Bizirik plataformak, 13 boto PSE-EEk, eta botorik ez du jaso PPk. Herri plataformak aurreko udal hauteskundeetan baino 26 boto gutxiago eskuratu ditu. Baliogabeko botorik ez dute jaso eta zuriak 7 boto zenbatu dituzte. Denera 139 herritarrek bozkatu dute.

# Bidania-Goiatzen Joan Inazio Zinkunegik lortu du alkatetza

Ibiri taldeak lau zinegotzi izango ditu udalean eta Garai Berriak taldeak, berriz, hiru zinegotzi; PSE-EEk ez du zinegotzirik eskuratu, bost boto jaso dituelako

**Irati Saizar Artola**
Bidania-Goiatz

Lehen aldiz aurkeztu da Ibiri plataforma udal hauteskundeetara, eta 154 boto jasota, udal gobernuan izango da, lau zinegotzirekin. Garai Berriak plataformak hiru zinegotzi izango ditu datozen lau urteetan, 91 boto bilduta. Aldiz, PSE-EEren zerrendak 5 boto jaso ditu eta ez du zinegotzirik izango udalean.

Hori horrela, Joan Inazio Zinkunegik jasoko du alkate makila, lau urtez alkate izan den Agurtzane Zelaiaren eskutik. Zinegotzien zerrenda honakoa izango da: Ibiri taldeko Jose Migel Mendizabal, Maialen Irazusta eta Maite Larrarte, eta Garai Berriak taldeko Miren Josune Landa, Jose Maria Iraeta eta Denis Lopez.

Denera, 19 boto zuri kontatu dituzte eta 12 boto baliogabeak izan dira. Guztira 281 herritar joan dira botoa ematera.

Joan Inazio Zinkunegik, eta bere taldeak, «pozik» jaso ditu hauteskundeetako emaitzak. Hala esan zuen emaitzak jaso berritan. «Eskerrak ematea dagokigu, botoa ematera gerturatu diren herritar guztiei». Gogotsu eta ilusio handiz hartu dutela esan du erronka berria.


Joan Inazio Zinkunegi lehen aldiz arituko da udalean, alkate modura. ATARIA

**UDAL HAUTESKUNDEAK**

| ALDERDIA | BOTOAK |
|---|---|
| IBIRI | 154 |
| GARAI BERRIAK | 91 |
| PSE-EE | 5 |
| ZURIAK | 19 |
| BALIOGABEAK | 12 |

## Ezustekorik gabe, Migel Angel Arsuagak alkate izaten jarraituko du

Denera 126 herritarrek bozkatu dute; zuriak 12 zenbatu dituzte eta baliogabeak 9; aurten ere pertsonak bozkatu dituzte

**I. S. A.** Orendain

Orendaingo EH Bilduko Migel Angel Arsuaga izango da hurrengo agintaldiko alkatea. Azken lau urteetan ere berak izan du ardura hori eta datorren agintaldian ere alkate makilarekin jarraituko du orendaindarrak.

Arsuagak lau zinegotzi izango ditu udalean aldamenean, datozen lau urteetarako lanerako prest: Jone Tolosa, Irati Esteban, Iker Ormaetxea eta Olatz Santos. Talde berria izango da honakoa, alkateak soilik errepikatuko duelako agintaldia, gainerako zinegotziak berriak izango dira udal jardunean.

Aurten ere, duela lau urte bezala, EH Bilduk soilik aurkeztu du Orendainerako udal hauteskundeetarako zerrenda. Kasu honetan, pertsonak bozkatzen dituzte: Arsuagak 84 boto jaso ditu, Tolosak 86 boto, Estebanek 88 boto, Ormaetxeak 78 boto eta Santosek 74 boto. Boto zuriak 12 zenbatu dituzte, eta baliogabeak, berriz, 9. 126 herritarrek eman dute botoa.

# Ikaztegietan Alba Garmendiak hartuko du alkate makila

EH Bilduk 154 boto jaso ditu eta 5 zinegotzi izango ditu udalean; EAJk 75 botorekin, 2 zinegotzi

**I. S. A.** Ikaztegieta

154 boto jasota, alkatetza lortu du Alba Garmendia EH Bilduko alkategaiak, Ikaztegietan. Duela lau urte baino 4 boto gehiago eskuratu ditu EH Bilduk. EAJ alderdiak behera egin du, duela lau urte baino 40 boto gutxiago jasoz. EAJk azken agintalditik zinegotzi bat galdu du, eta EH Bildurentzat izango da. PSE-EEk 2 boto jaso ditu.


Alba Garmendia, alkate berria. ATARIA

**UDAL HAUTESKUNDEAK**

| ALDERDIA | BOTOAK |
|---|---|
| EH Bildu | 154 |
| EAJ | 75 |
| PSE-EE | 2 |
| ZURIAK | 4 |
| BALIOGABEAK | 2 |

Hori horrela, EH Bilduk bost zinegotzi izango ditu, Garmendiarekin batera, Maria Apalategi, Eñaut Larrea, Adur Ibarguren eta Rafiaa Aali-Salem izango dira zinegotziak. EAJk, berriz, bi zinegotzi izango ditu: Anton Elosegi eta Patxi Ulanga. Abstentzioa %32,86koa izan da.

# Iñaki Telleriak jarraituko du alkatetzan

Udal gobernua Denok Bat plataformaren esku geratu da, PSE-EEk ez baitu lortu zinegotzirik Belauntzan

**I. S. A.** Belauntza

Bi aukera ziren Belauntzan udal hauteskundeei begira: Denok Bat eta PSE-EE. Zinegotzi guztiak Denok Bat plataformak eskuratu ditu, eta PSE-EE zinegotzirik gabe geratu da. Beraz, Iñaki Telleriak jarraituko du alkate. Aurten, bost zinegotzi izatetik zazpi zinegotzi izatera pasa dira.

Denok Batek 107 boto eskuratu ditu, eta PSE-EEk 6 boto. Guztira, 126 lagunek bozkatu dute udal hauteskundeetarako eta 119 herritarrek Batzar Nagusietarako. Boto zuriak 11 zenbatu dituzte eta baliogabeak 2 boto.

2019ko udal hauteskundeetan, Silvia Moneok eskuratu zuen alkatetza. 2021eko azaroan, Iñaki Telleriak hartu zuen Moneoren kargua, eta azken bi urteetan bera izan da herriko alkatea.


KZ gunean eman zuten bozka. I. S. A.

# Baliarrainen Ugaitz Garmendiak hartuko du alkatetza

Auzolanean Bizirik taldea da Baliarrainen aurkeztu den bakarra, eta 70 boto jasota udalean jarraituko dute bost zinegotzik

**E. M.** Baliarrain

Ugaitz Garmendia gaztea izango da Baliarraingo alkate berria. Auzolanean Bizirik herri plataforma bakarrik aurkeztu da udal hauteskundeetara, eta deituta zeuden 100 herritarretatik 70 boto izan dira taldeak jaso dituenak.

Horiez gain, botoa eman duten bi herritarrenak baliogabeak izan dira. %28ko abstentzioa izan da.

**AUZOLANA**

Ugaitz Garmendia Aurkiarekin batera, Amets Arteaga Bereziartua, Mikel Villacorta Rollan, Xabier Urtasun Etxeberria eta Josu Ozaita Azpiroz baliarraindarrak izango dira hurrengo lau urteetan udal ordezkari lanak egingo dituztenak. Bost zinegotzi horiek izango dira herritarrekin batera auzolana sustatu eta herria aurrera aterako dutenak.

Duela lau urtekoan 62 herritarrek bozkatu zuten Auzolanean bizirik, eta %30eko abstentzioa izan zen.

# EH Bilduko Andoni Zuriarrainek lortu du boto gehien Berastegin

227 boto lortuta zazpi zinegotzi izango ditu EH Bilduk, orain arte baino zinegotzi bat gehiago; bi zinegotzi lortu ditu EAJ alderdiak, 73 boto eskuratuta

**E. M.** Berastegi

Alkate berria izango du hurrengo lau urteetan Berastegik. Andoni Zuriarrain Iturbe izango da alkatea. 227 boto eskuratu ditu EH Bilduko zerrendak, eta emaitza horiekin, orain artean zutena baino zinegotzi bat gehiago izango du udalean: zazpi zinegotzi. Botoen %72,52 izan dira EH Bildurenak.

EH Bilduk, PSE-EEk eta EAJk aurkeztu dute zerrenda udal hauteskundeetarako.

EAJ alderdiak 73 boto eskuratu ditu, botoen %23,32. Abstentzioa %31,44koa izan da Berastegiren kasuan, eta duela lau urte %20,94ekoa izan zen. 10 boto zuri eta baliogabe bat ere zenbatu dituzte.

Duela lau urte EH Bilduk 398 boto lortu zituen, eta Berastegi Bizi taldeak 254.

**ZURIARRAIN <<OSO POZIK>>**

Botoen kontaketa egin bezain laster egin du balorazioa Andoni Zuriarrain alkate berriak, eta «oso positiboa» izan dela zehaztu du.

«Oso pozik gaude herritarrek aurrez egindako lana eskertzen dutelako», gaineratu du Zuriarrainek.

Horrez gain, lanerako «prest» agertu da, eta «ilusio guztiz» hartuko duela kargua esan du. «Talde indartsua daukagu», zehaztu du, eta «herri guztiarentzako lan egiteko prest» daudela azpimarratu du.

Andoni Zuriarrainekin batera, Uxue Arzallus Ansa, Xabier Saralegi Labaien, Larraitz Garaiburu Ramos, Juan Luis Marcelino Zubiria, Leire Garciarena Urdangarin, Urko Atxukarro Otegi, Lurdes Malcorra Lecea eta Nahikari Zubillaga Escudero dira zerrenda kideak.


Andoni Zuriarrain alkatea. ATARIA

**UDAL HAUTESKUNDEAK**

| ALDERDIA | BOTOAK |
|---|---|
| EH Bildu | 227 |
| EAJ | 73 |
| ZURIAK | 10 |
| BALIOGABEAK | 1 |

# Xabier Olanok eskuratu du aginte makila Altzon

EH Bilduk jarraituko du agintean Altzon, 191 boto kontatuta; herriko zazpi zinegotziak beraienak izango dira

**E. M.** Altzo

EH Bilduk jarraituko du agintean, Altzon, Xabier Olano Jauregi alkatearekin. Txomin Rezolari erreleboa hartuz, Olanok hartuko du alkate kargua. 191 boto eskuratu dituzte.

Olanorekin batera hauek osatuko dute EH Bilduren taldea: Ainara Garcia Bravo, Xabier Murua Zubizarreta, M. Aranzazu Menendez Chopitea, Enaitz Aizpitarte Murua, M. Dolores Arandia Azpeitia eta Joseba Elduaien Olazar.

**39 BOTO**

EH Bilduko zerrendaz gain, PP alderdia aurkeztu da, Altzon. Azken horiek bi boto eskuratu dituzte. Bestetik, 23 boto izan dira baliogabeak eta beste hamalau zuriak.

350 herritarrek zuten bozka eskubidea, eta 230 izan dira botoa ematera joan direnak.

Duela lau urte EH Bilduk 205 boto jaso zituen udal hauteskundeetan, eta %28,88ko abstentzioa izan zen.

# Amezketan EH Bilduk jarraituko du Mikel Arteaga alkate dela

Arteagak lortu du alkatetza 362 boto eskuratuta; Amezketa Etorkizun taldeak 136 boto jaso ditu

**E. M.** Amezketa

Amezketan herritarrek lau zerrenda zituzten aukeran, eta horietatik bozkatuena Mikel Arteaga buru duen EH Bilduren zerrenda izan da. 362 boto lortu ditu EH Bilduk, eta bost zinegotziak mantenduko dituzte.

737 herritar zeuden bozkatzera deituta. Amezketa Etorkizun taldeak 136 boto lortu ditu, eta PSE-EE alderdiak 5 boto.

Duela lau urte 351 boto jaso zituen EH Bilduk, oraingoan baino hamaika boto gutxiago. Aldiz, 167 boto izan ziren Amezketa Etorkizun taldearenak. Arteagak alderdikide duen Iñaki Amundarainen eskutik jasoko du aginte makila. Arteaga zinegotzia izan da azken lau urteetan.


Mikel Arteaga da alkate berria. ATARIA

**UDAL HAUTESKUNDEAK**

| ALDERDIA | BOTOAK |
|---|---|
| EH Bildu | 362 |
| Amezketa Etorkizun | 136 |
| PSE–EE | 5 |
| ZURIAK | 17 |
| BALIOGABEAK | 5 |

# Laugarren agintaldia Zubizarretarentzat

Herrigintza herri plataformarenak izango dira zinegotzi guztiak, 132 boto eskuratuta

**E. M.** Abaltzisketa

Herrigintza herri plataforma baino ez da aurkeztu Abaltzisketan udal hauteskundeetara. Zerrendaburu, laugarren agintaldiz jarraian, Ion Zubizarreta da. Berriz ere berak hartuko du herriko aginte makila.

Ion Zubizarreta Aldaiarekin batera taldea hauek osatuko dute: Maialen Senperena Iztueta, Unai Garmendia Urkia, Aitor Otamendi Jauregi, Alexandra Egunez Zalakain, Egoitz Gorostidi Urkia eta Gorka Senperena Irastorza.

132 boto eskuratu ditu herri plataformak. Horiez gain, 14 boto zuri kontatu dira, eta sei boto baliogaberekin osatu dute kontaketa.

Duela lau urte 152 boto jaso zituen Zubizarretaren taldeak.


Ion Zubizarreta berriz alkate. E.M.

# Egoitz Luisa izango da alkatea Anoetan

## EH Bilduk zazpi zinegotzi lortu ditu, gehiengo osoa eskuratuz, eta EAJk lau zinegotzi izango ditu



Anoetako Herri Ikastolan eman zuten botoa atzo anoetarrek. I.G.L.

**Imanol Garcia Landa** Anoeta

EH Bilduk irabazi ditu berriro udal hauteskundeak Anoetan. 592 boto jaso ditu, orain lau urte baino 7 gehiago eta guztira 7 zinegotzi lortu ditu, aurreko hauteskundeetan baino bat gehiago. Egoitz Luisa izango da alkate berria eta lehen aldiz hartuko du kargua, aurreko hiru legealditan alkate izan den Pello Estangaren lekukoa hartuz. EAJ alderdiak 313 boto eskuratu ditu, orain lau urte baino 110 gutxiago, eta 4 zinegotzi izango ditu, aurreko legealdian baino bat gutxiago. Aurreko legealdian gertatu zen moduan, PSE-EEk ez du udalbatzan ordezkaritzarik izango, 38 boto lortu ondoren, 2019an baino 2 gutxiago.

Emaitzak jakin ondoren, Egoitz Luisak azaldu zuen «oso gustura» zeudela beste zinegotzi bat lortu zutelako: «Zazpigarren zinegotzia lortu dugu, hori tarte handiz izan da, eta aurreko legealdian baino bat gehiago dugu». Luisak gaineratu zuenez, «ulertzen dugu aurreko urteetan egindako lanarekin gustura daudela herritarrak, eta herriari aurkeztu diogun proiektuarekin bat egiten duela. Orain, bihartik aurrera lan egitea tokatzen da». Bestalde, abstentzioa igo izanak sentsazio «gazi-gozoa» utzi diela esan zuen. Luisarekin batera, EH Bilduko beste hautetsi ia guztiak berriak izango dira: Ana Elosegi, Bakarne Garmendia, Aitzol Esnaola, Maialen Mujika eta Mikel Olano. Amaia Urkola zazpigarrena joan da zerrendan, eta bera izango da aurreko legealditik errepikatuko duen bakarra.

Bere aldetik, EAJ alderdiko Nuria Carbonell zerrendaburuak azaldu zuenez, «lau zinegotzi lortu ditugu eta herrian presentzia indartsua izaten jarraituko dugu. Eskertu nahi diogu Anoetako herritarrei eman diguten babesa eta konfiantzagatik». Beste hiru zinegotzi jeltzaleak Agurtzane Nuñez, Aitzol Arozena eta Jaime Peon izango dira.

Parte hartzea %63,86koa izan da Anoetan, eta duela lau urteko datuekin alderatuta, %7,07 egin du behera.

### UDAL HAUTESKUNDEAK

| ALDERDIA | BOTOAK |
|---|---|
| EH BILDU | 592 |
| EAJ | 313 |
| PSE–EE | 38 |
| ZURIAK | 35 |
| BALIOGABEAK | 13 |

### HAUTETSIAK



EGOITZ LUISA
EH BILDU



ANA ELOSEGI
EH BILDU



BAKARNE GARMENDIA
EH BILDU



AITZOL ESNAOLA
EH BILDU



MAIALEN MUJIKA
EH BILDU



MIKEL OLANO
EH BILDU



AMAIA URKOLA
EH BILDU



NURIA CARBONELL
EAJ



AGURTZANE NUÑEZ
EAJ



AITZOL AROZENA
EAJ



JAIME PEON
EAJ

# Gorka Murua izango da berriro alkatea

## EH Bildu izan da bozkatuena eta sei hautetsi lortu ditu, orain lau urte baino bat gehiago; EAJ izan da bigarren bozkatuena eta hiru zinegotzi izango ditu, lehen baino bat gutxiago

**I. Garcia Landa** Irura

EH Bilduk irabazi ditu udal hauteskundeak Iruran, eta Gorka Murua izango da berriro alkatea. Bere bigarren legealdia izango da karguan. Guztira 435 boto jaso ditu koalizioak, orain lau urte baino 23 gutxiago, eta 6 zinegotzi lortu ditu, aurreko hauteskundeetan baino bat gehiago. EAJ alderdia izan da bigarrena, 249 boto eskuratuz, orain lau baino 101 gutxiago, eta guztira 3 zinegotzi izango ditu, bukatu den legealdian baino bat gutxiago. PSE-EE izan da hirugarren zerrenda bozkatuena, 32 boto lortuz, aurreko hauteskundeetan baino 7 gutxiago eta ez du ordezkaritzarik lortu. PP alderdia orain lau urte ez zen aurkeztu; aurtengoetan 7 boto lortu ditu, eta ez du ordezkaritzarik izango.

Emaitzak ezagutu ostean, Gorka Muruak azaldu zuen balantze «oso positiboa» egin zutela: «Nahiz eta partaidetza jaitsi egin den, gure bozka kopurua duela lau urteko berdintsua da. Ulertzen dugu lau urtetan egindako lanaren fruitua dela, eta ontzat eman duela Irurako herriak EH Bilduk egin duen lan hau guztia». Partaidetzarik dagokionez, izan den jaitsieraren inguruan «nolabaiteko hausnarketa orokor bat eskatzen duela» azaldu zuen Muruak, eta gaineratu zuen «erakundeekiko urruntze bat islatzen» duela horrek. «Hor lan handia dago egiteko». EH Bilduko beste zinegotziak Olaia Nieto, Mikel Iturbe, Idoia Garaialde, Noelia Lataburu eta Ioritz Lazkano izango dira.



Gorka Murua. ATARIA

Bere aldetik, Gorka Sagarna EAJko zerrendaburuaz gain, beste bi zinegotziak Ana Leunda eta Begoña Tolosa izango dira.

Parte hartzea %58,27koa izan da, eta duela lau urteko datuekin alderatuz gero, %10,95 egin du behera.

### UDAL HAUTESKUNDEAK

| | |
|---|---|
| EH BILDU | 435 |
| EAJ | 249 |
| PSE–EE | 32 |
| PP | 7 |
| ZURIAK | 15 |
| BALIOGABEAK | 9 |

# Alegian aurrea hartu dio Aurrera Alegiak EH Bilduri, 14 botogatik

## 14 botoren aldearekin Aurrera Alegiako Regina Sorarrainen taldearentzat izango da alkatetza; EH Bildu oposiziora pasako da datorren agintaldian, lau zinegotzirekin

**Irati Saizar Artola** Alegia

Aldaketa gertatu da Alegian. Regina Sorarrain izango da datozen lau urteetan Alegiako alkatea. Aurrera Alegia taldeak 462 boto eskuratu ditu, eta EH Bilduk, berriz, 448. 14 botoren aldea atera dio Sorarrainek, Edurne Arrayet zerrendaburu duen EH Bilduri. PSE-EEk, 15 botorekin, ez du zinegotzirik izango Alegiako Udalean.

Aurrera Alegiako zerrendaburuak Arantxa Irazustaren lekukoa hartuko du, bere eskutik jasoaz alkate makila. Aurrera Alegiak bost zinegotzi izango ditu datozen lau urteetan, orain izan dituenak baino bat gehiago. Sorarrain batera arituko dira Andrea Larrañaga, Maria Jesus Gaztañaga, Jose Javier Zabala eta Maialen Landart. EH Bilduk berriz, lau zinegotzi izango ditu agintaldi berrian, aurrekoan baino bat gutxiago, eta honakoek hartuko dute udalerako bidea, Arrayetekin batera : Alex Goikoetxea, Asier Ezeiza eta Amaia Jimenez.

Atzokoan, 949 herritar joan ziren botoa ematera Alegiako bozkalekuetara, duela lau urte baino 15 herritar gehiago. Zurian bozkatu dutenak 18 izan dira, eta boto baliogabeak 6. Abstentzioa %25,68koa izan da.



Regina Sorarrainek hartuko du Arantxa Irazustaren ardura. ATARIA

> **«Umiltasunez beterik hartu ditugu emaitzak; garbi daukagu 14 botoren aldeak suposatzen duena»**
>
> REGINA SORARRAIN
> AURRERA ALEGIA

### EMAITZAK UMILTASUNEZ

«Umiltasunez beterik» hartu dituzte emaitzak Aurrera Alegia taldeko kideek. Hala adierazi zuen Regina Sorarrain zerrendaburuak, emaitzak jaso berritan. «14 botoren aldeak suposatzen duena oso garbi daukagu. Gauza guztien gainetik, herriaren alde, lau urtetako lanari jarraipena emango diogu, eta hitza ematen dugu geure hoberena emango dugula». Alegiako herriari eskerrak eman nahi izan zizkion, talde osoaren izenean.

Lana egiteko «gogoa eta ilusioa» dutela aitortu zuen. «Herri hau beste modu batera kudeatzeko modua badagoela iruditzen zaigu, eta horren aldeko apustua egingo dugu». Elkarlanean aritzeko asmoa dutela gehitu zuen, «beti elkarbizitza gauza guztien gainetik jarriz».

Lau urteetan egin duten lana nabarmendu zuen, «gauza asko eman nahi izan ditugu aurrera, baina badakigu 14 botoko aldea dela, ez dela gehiengo izugarria ere, horregatik diot umiltasunetik hartzen ditugula emaitzak». Herriak emandako aukera ez dutela alferrik galduko esan zuen. «Herriaren alde lanean jarraituko dugu, oraintxe bezalaxe, elkarbizitza erdigunean jarriz». Elkarlanean jarduteko gonbidapena luzatu dio EH Bilduri.

### EH BILDU OPOSIZIORA

Herria erdibituta dagoela ikusi dela esan zuen Edurne Arrayet EH Bilduko zerrendaburuak. «Guk geneukan guztia eman dugu», gehitu zuen atzo. Aurrera Alegiako taldekideak zoriondu nahi izan zituen. Udalean oposizioan jardun beharko du datozen lau urteetan EH Bilduk.

### UDAL HAUTESKUNDEAK

| | |
|---|---|
| AURRERA ALEGIA | 462 |
| EH BILDU | 448 |
| PSE–EE | 15 |
| ZURIAK | 18 |
| BALIOGABEAK | 6 |

ataria
www.ataria.eus
107.6 fm
babestu ataria
Hauteskundeak
Atarian JARRAITZEA
BAKARRIK EZ delako nahikoa,
Ataria BABESTU ere egin behar da.
EGIN ATARIKIDE!
Ataria.eus/bazkidetu
atarikide@ataria.eus
943 65 56 95

# Aitzol Izquierdo izango da Berrobiko alkatea

Berrobi Bizi taldeak sei hautetsi izango ditu datozen lau urteetan eta alderdi sozialistak bakarra; 226 boto lortu ditu Berrobi Bizik eta 50 boto, berriz, PSE-EEk

**Leyre Carrasco** Berrobi

Berrobi Bizi eta PSE-EE taldeak aurkeztu dira Berrobin. Jokoan zeuden zazpi hautetsietatik sei lortu ditu Berrobi Bizik eta bestea, berriz, PSE-EE taldeak eskuratu du. 291 bizilagunek eman dute aurten botoa; 226 boto Berrobi Bizi taldearentzat izan dira, eta 50 boto, berriz, alderdi sozialistarentzat. Beraz, datozen lau urteetan Aitzol Izquierdo izango da Berrobiko alkate.

Azken hauteskundeetatik hona boto-emaileen parte hartzea igo egin da. Duela lau urte 258 lagunek bozkatu zuten, eta 291 bizilagunek eman zuten botoa atzokoan. Boto kopurua alderatuta, PSE-EEk gora egin du; duela lau urte 30 boto jaso baitzituen, eta aurtengo hauteskundeetan, berriz, 50 boto eraman zituen.



Aitzol Izquierdo Berrobiko hauteslekuan. LEYRE CARRASCO

**IZQUIERDO, ALKATE**

Aitzol Izquierdo izango da datozen lau urteen Berrobiko alkate, eta lortutako emaitzen aurrean pozik agertu da: «Duela bederatzi hilabete hasi genuen proiektu honekin herritarren babesa izan dugu, eta oso pozik gaude».

## Iñaki Azpirozek jarraituko du alkatetzan beste lau urtez

Lizartzako zazpi zinegotziak EH Bilduk izango ditu; 290 bizilagun joan dira bozkatzera, eta 247 boto jaso ditu denera

**Leyre Carrasco** Lizartza

Aurten, EH Bilduk soilik aurkeztu du zerrenda Lizartzan, eta herritarrek babesa erakutsi zioten Iñaki Azpiroz buru zuen zerrendari; zazpi hautetsiak lortuta. Botoa eman zuten 290 bizilagunetatik 247 lagunek eman zioten atzo, botoa. %61eko partaidetzarekin, 29 boto zuri eta 14 boto baliogabe zenbatu zituzten.

Azken hauteskundeetatik boto-emaileen kopuruak behera egin du. Duela lau urte 350 lagunek bozkatu zuten, eta aurten, 290 bizilagun joan dira bozkatzera. Azken bi agintaldietan EH Bildurena izan da udal gobernua, eta datozen lau urteetan ere zazpi zinegotziak koalizio abertzalearenak izango dira. Beraz, Iñaki Azpirozek alkatetzan jarraituko du.

## Gurutze Etxezabal izango da Orexako alkatea

Orexako bost zinegotziak EH Bilduk izango ditu; bozkatu dutenen 72 bizilagunen artean, 66 boto eskuratu baititu

**Leyre Carrasco** Orexa

EH Bildu bakarrik aurkeztu da, beste urte batez, udal hauteskundeetara eta herritarrek babesa erakutsi zioten Gurutze Etxezabal buru zuen zerrendari. Denera 66 herritarrek eman diote botoa koalizio abertzaleari, %85eko partehartzearekin. Hiru boto zuri eta beste hiru boto baliogabe zenbatu dituzte. Botoemaileen kopuruak behera egin du. Duela lau urte 76 lagunek bozkatu baitzuten, eta aurten, 72 bizilagun joan dira bozkatzera.

Azken hiru udal hauteskundeetan Eneko Maioz izan zuten alkate Orexan, eta datorren agintaldian, berriz, Gurutze Etxezabalek hartuko du alkate makila, Joakin Iturrioz, Ainhoa Nazabal, Aitor Iturralde eta Igor Malkorrarekin batera.

## EH Bilduk irabazi du Leaburun-Txaraman

Bost zinegotzi eskuratu ditu EH Bilduk, eta beste bi zinegotziak, berriz, EAJ-k lortu ditu

**Leyre Carrasco** Leaburu–Txarama

Aurten, bi aukera ziren Leaburu-Txaraman udal hauteskundeei begira: EH Bildu eta EAJ. Jokoan zeuden zazpi hautetsietatik bost EH Bildurentzat izan dira, 118 boto eskuratuta, eta beste hiruak EAJ-k eskuratu ditu, 49 botorekin. Beraz, Joxe Ramon Eizagirrek jarraituko du agintaldian. Denera 180 lagunek bozkatu zuten, tartean, 7 boto zuri eta 6 boto baliogabe kontatu dituzte.

Boto-emaileen kopuruak behera egin du; duela lau urte 206 lagunek bozkatu baitzuten. Azken bi agintaldietan EH Bildurena izan da udal gobernua, eta datozen lau urteetan ere agintaldian egongo da.




Joxe Ramon Eizagirre alkatea. EH BILDU

**UDAL HAUTESKUNDEAK**

| ALDERDIA | BOTOAK |
|---|---|
| EH BILDU | 118 |
| EAJ | 49 |
| ZURIAK | 7 |
| BALIOGABEAK | 6 |

## Eider Olazar Gazteluko alkate izango da

55 herritarrek EH Bilduri eman diote bozka; jasotako botoetatik, 18 boto zuri eta 13 boto baliogabe zenbatu dituzte

**Leyre Carrasco** Gaztelu

EH Bildu soilik aurkeztu da udal hauteskundeetara Gaztelun. Erroldako 86 bizilagun joan dira bozkatzera, eta 55 herritarrek koalizio abertzaleari eman diote bozka; iaz baino 10 boto gehiago jaso dituzte. 18 boto zuri eta 13 boto baliogabe zenbatu dituzte. Aurtengo udal hauteskundeek %68,8ko parte hartzea izan dute.

Azken udal hauteskundeetan Edurne Gartzia izan zuten alkate Gaztelun, eta datorren agintaldian, berriz, Eider Olazarrek hartuko du alkate makila. Berarekin batera izango dira Nerea Sanchez, Tamara Loriente, Beñat Zubiria eta Amale Zinkunegi.

## Oihana Amundarainek alkatetzan jarraituko du

Elduaingo bost zinegotziak EH Bilduk izango ditu; 74 bizilagunen botoak jaso ditu denera

**Leyre Carrasco** Elduain

Aurten ere EH Bildu bakarrik aurkeztu da Elduaingo udal hauteskundeetara. Herri txikietan egin ohi denez, herritarrek aukeratu dituzte zinegotziak. Zerrendaburua Oihana Amundarain da, eta berak jaso ditu boto gehien, 66 guztira; Maite Bizkarrondok 53 boto, Juan Ramon Gurrutxagak 54 boto, Olaia Garaioak 57 boto eta Pedro Iriartek 53 boto jaso dituzte. Boto zuriak 13 eta 7 boto baliogabe zenbatu dituzte guztira.

Elduaingo azken hauteskundeetatik boto emaileen kopuruak behera egin du. Duela lau urte 114 herritarrek bozkatu baitzuten, eta atzo, berriz, 94 lagunek eman zuten botoa.



Oihana Amundarain alkatea. I. SAIZAR

# Herniope hautagaitzako Luis Arana da alkate berria Hernialden

Duela lau urte baino 17 boto gutxiago eskuratu ditu herrian aurkeztu den hautagaitza bakarrak; zazpi zinegotzi izango ditu

**J. M.** Hernialde

Herniope hautagaitza izan da aurten Hernialden aurkeztu den zerrenda bakarra. Izen horrekin hautagaitza independentea aurkeztu zen lehen aldiz duela lau urte eta 134 boto eskuratu zituen. Atzoko udal hauteskundeetan, aldiz, 117 boto eskuratu zituen. Babes txikiagoa lortu du, 2019koarekin alderatuta, baina parte hartzea duela lau urtekoa baino txikiagoa izan zen atzo, orotara, %50,9koa.

Zerrendaburu berria zuen Herniopek aurten, eta honenbestez, Luis Arana izango da alkate berria Hernialden. Aitor Zubillagaren lekukoa hartuko du. Aurreko legealdian hasitako bideari jarraituko dio Aranak eta herri bileren bitartez herritarrekin elkarlanean aritzeko asmoa du. Hiru proiektu nabarmendu ditu Hernialdeko alkate izango denak: «Txingurri bailarara doan errepide zati bat zabaldu eta konpontzea; pilotalekua berritzea; eta datorren urteari begira ur hornidura sarea berritzen hasteko proiektua lantzea».

# Maite Arana sozialistak berretsi egin du alkatetza Larraulen

Larraulen duela lau urte baino boto zuri gutxiago egon dira eta babes zabalagoa izan du PSE-EEko hautagaitzak bost zinegotzi lortuz; EAJk bi zinegotzi eskuratu ditu

**Jon Miranda** Larraul

Duela lau urte baino parte hartze txikiagoarekin, baina PSE-EEk 2019an baino babes zabalagoa lortu zuen atzo, Larraulen. 55 boto eskuratu zituen alderdi sozialistak, aurreko udal hauteskundeetan baino 36 gehiago. Datozen lau urteetan Maite Arana sozialistak jarraituko du alkatetzan, atzo PSE-EEk zazpi zinegotzietatik 5 lortu baitzituen. Aurkezten ziren beste bi hautagaitzetatik EAJk lortuko du ordezkaritza. Lehen aldiz aurkeztu udal hauteskundeetara, eta 19 boto eskuratu zituen atzo; 2 zinegotzi izango ditu, beraz, Larraulgo Udalean.

Aranak, atzo, emaitzak jakin bezain pronto «pozik» zegoela adierazi zuen: «Larrauldarrei eskerrak eman nahi dizkiet, balorea eman diotelako egin dugun lanari. Eta ez bakarrik egin dugunari, baizik eta egiteko moduari ere: larrauldarrekin batera». 2019ko udal hauteskundeetan PSE-EE izan zen aurkeztu zen zerrenda bakarra eta 19 boto eskuratu zituen. Boto zuriak %82 izan ziren. Aurten boto zuriak 21 baino ez dira izan, boto baliodunen %21,6.

Larraulen ordezkaritza izango duen beste alderdia EAJ da. Joxe Agustin Arrieta eta Maria Isabel Vaquero izango dira zinegotzi. Arrietak, atzo, adierazi zuen «sorpresa» eraman zuela emaitzarekin. «Ilusioa nuen baina ez da posible izan. Sozialistek emaitza onak lortu dituzte udal hauteskundeetan, baina foru hauteskundeetan bost baino ez. Oposizioan ilusio berdinarekin jarraituko dut Larraulen alde».



Banan-banan gerturatu ziren hautesleak atzo Larraulgo bozkalekura. J. M.

**UDAL HAUTESKUNDEAK**

| ALDERDIA | BOTOAK |
|---|---|
| PSE-EE | 55 |
| EAJ | 19 |
| PP | 2 |
| ZURIAK | 21 |
| BALIOGABEAK | 8 |

# Inaki Irazabalbeitiak beste lau urte emango ditu Alkizan alkate

Zazpi zinegotziak eskuratu ditu Alkizako Abertzale Ezkertiarrak taldeak; duela lau urteko ia babes berdina eskuratu du hautagaitzak

**J. M.** Alkiza

Alkizako Abertzale Ezkertiarra taldeak 130 boto jaso zituen 2019ko udal hauteskundeetan, eta atzo berriz, bi gutxiago, 128. Udaleko zazpi zinegotziak eskuratu ditu hautagaitza independenteak eta Inaki Irazabalbeitiak jarraituko du alkate Alkizan. Bigarren legealdia izango du karguan. 2015ean PP eta 2019an PSE-EE izan zituen aurkari Alkizako Abertzale Ezkertiarrak eta atzoko udal hauteskundeetan bi alderdiok aurkeztutako hautagaitzak ere izan ziren aukeran, nahiz eta ez zuten nahikoa botorik lortu ordezkaritza eskuratzeko. Hiru boto lortu zituen PSE-EEk eta bakar bat ere ez PPk.

Gipuzkoako Foru Aldunditik foru funtsaren bidez Alkizak jasotzen dituen baliabide ekonomikoak emendatzen saiatuko da Irazabalbeitia agintaldi berrian, landa eremuko herri txikien egoera aintzat har dezaten: «Beharrezkoa dugu gure asmoak aurrera eramateko, bestela ezin diegu herritarrei zerbitzu egokia eman».

# EH Bilduko Kristina Rodriguez izango da Adunako alkate berria

Duela lau urte baino 37 boto gehiago lortu ditu koalizio abertzaleak; EAJk ez du zinegotzirik izango

**J. M.** Aduna

2019ko udal hauteskundeetan EH Bilduk baino ez zuen aurkeztu hautagaitza Adunan. Atzoko udal hauteskundeetan EAJ eta PPrekin lehiatu behar izan zuen koalizio abertzaleak. Atzo, Kristina Rodriguez alkategai duen zerrenda izan zen boto gehien eskuratu zituena, alde handiz. EH Bilduk 7 zinegotziak eskuratu ditu.

1983ko udal hauteskundeetatik ez zuen EAJk hautagaitzarik aurkezten eta atzoko udal hauteskundeetan 15 boto eskuratu zituen. Ez du ordezkaritzarik izango.

Rodriguez «poz-pozik» dago emaitzarekin. «Parte hartzea handia izan da eta nabari da herritarrek nahi dutena dela bertako jendeak gobernatzea herria».



Rodriguez atzo botoa ematen. ATARIA

**UDAL HAUTESKUNDEAK**

| ALDERDIA | BOTOAK |
|---|---|
| EH BILDU | 267 |
| EAJ | 15 |
| PP | 1 |
| ZURIAK | 11 |
| BALIOGABEAK | 1 |

# Pili Legarrak laugarren legealdiari ekingo dio

Zortzi zinegotzi eskuratu ditu orain arteko alkatearen hautagaitzak, eta bakarra, berriz, EAJk

**J. M.** Asteasu

Asteasu Batuz hautagaitza independenteak irabazi zituen atzo udal hauteskundeak, laugarrengo aldiz jarraian. 2019an baino 12 boto gehiago eskuratu zituen eta Pili Legarrak laugarren legealdia abiatuko du alkate gisa. Alboan izango ditu beste 7 zinegotzi, aurrekoan baino bat gehiago

EAJ izan zen bigarren indar bozkatuena. Duela lau urte baino babes txikiagoa eskuratu du, 126 botorekin. Honenbestez, ordezkaritza txikituko du zinegotzi bakarrarekin. PSE-EEk ez du ordezkaritzarik izango Asteasuko Udalean.

Pili Legarra herritarren babesa jasotzeagatik «oso pozik» agertu zen. «Eskertuta nago herritarrei eta honek izugarrizko indarra ematen dio gure taldeari lanean jarraitzeko. Beteko dugu hartu dugun konpromisoa».

**UDAL HAUTESKUNDEAK**

| ALDERDIA | BOTOAK |
|---|---|
| ASTEASU BATUZ | 511 |
| EAJ | 126 |
| PSE-EE | 16 |
| ZURIAK | – |
| BALIOGABEAK | – |

# Zinegotzi bat gehituta, EH Bilduk hautagaitza indartu du Ibarran

## Laugarren legegintzaldia izango du EH Bilduk, eta Igor Zapirainek jarraituko du alkate; atzetik izan du EAJ, ia 300 boto eta zinegotzi bat galduta; PSE-EE-k zinegotzia mantendu du




**Ibarrako zaharren egoitzan eman zuten atzo botoa herritarrek.** LEYRE CARRASCO

**Leyre Carrasco** Ibarra

EH Bildu koalizioak lortu du boto gehien Ibarran. Botoa emateko eskubidea duten ibartarretatik 993 herritarrek egin dute EH Bilduren aldeko hautua. Bigarren indarra EAJ izan da, 517 botorekin. Hirugarrena, berriz, PSE-EE izan da, 154 botorekin.

Azken hiru udal hauteskundeetan bezala, beraz, EH Bilduk jaso du herritarren babes gehien Ibarran. Gainera, atzoko emaitzei esker, zinegotzi bat gehiago izango du koalizioak datorren legealdian, beraz, sei izatetik, zazpi zinegotzi izatera pasa da. Botoei begiratuta, kopurua mantendu duela esan daiteke, izan ere, azken udal hauteskundeetan 1.007 boto jaso zituen EH Bilduk, eta atzo 993, beraz, 14 boto gutxiago jaso ditu.

### UDAL HAUTESKUNDEAK

| | |
|---|---|
| EH BILDU | 993 |
| EAJ | 517 |
| PSE–EE | 154 |
| ZURIAK | 37 |
| BALIOGABEAK | 20 |

Ibarran, bigarren indarra EAJ izan da. Jeltzaleek galera handia izan dute azken udal hauteskundeekin alderatuta. 517 boto eskuratu zituzten atzoko bozetan, eta duela lau urtekoetan 798 izan zituzten, 281 boto gutxiago, beraz. Ondorioz, lau zinegotzi izatetik hiru izatera pasa dira.

PSE-EE izan da hirugarren indarra, eta zuen zinegotzia mantenduko du.154 boto lortu ditu, duela lau urte baino 37 gutxiago.

**IGOR ZAPIRAIN, ALKATE**

Igor Zapirainek alkate izaten jarraituko du datozen lau urtetan. Egun urduri igaro bazuen ere, emaitza jakin bezain laster pozik agertu zen; «2019ko hauteskundeetatik boto kopurua ez dugu ia jaitsi, eta gainera, zinegotzi bat gehiago izatea lortu dugu. Kezkatzen gaituen gauza bakarra abstentzioaren igoera izan da».

Izan ere, aurtengo bozetako abstentzioa %44,58koa izan da, duela lau urteko hauteskundeetan baino %9,89 handiagoa. Hala ere, hemendik aurrera neurri batzuk hartuko dituztela esan zuen alkateak, «igoera horren zergatia jakiteko».

Aurrera begira, lanean jarraitzeko asmoa eta gogotsu daudela adierazi zuen alkateak, eta, bereziki, jendearen hitza entzuten jarraituko dutela aitortu zuen, «hori da gure leloetako bat, beraz, horrekin aurrera jarraituko dugu».

Ibarrako EH Bilduri bozkatu zieten herritarrentzako esker hitzak ere izan zituen: «Mila esker gugan sinesten duten herritar guztiei. Azkenean, lau urte oso gogorrak izan dira, bi urte erabat geldirik egon behar izan dugu pandemiaren ondorioz, eta gertutasun hori eskertzekoa da».

Igaro diren azken lau urteetan alderdian egon diren zinegotzientzat esker hitza ere izan zituen, eta animoak eman zizkien zinegotzi berriei.

### HAUTETSIAK


**IGOR ZAPIRAIN** EH BILDU


**NAGORE ZUBILLAGA** EH BILDU


**ALBERTO SUKIA** EH BILDU


**IRATI ALTUNA** EH BILDU


**JESUS PEÑAGARIKANO** EH BILDU


**NEKANE LAZKANO** EH BILDU


**JULEN URRESTARAZU** EH BILDU


**RODRIGO VILAR** EAJ


**KOLDO CID** EAJ


**ESTRELLA FLORES** EAJ


**FERNANDO NARCISO** PSE–EE

# EH Bilduk eutsiko dio udal gobernuari zinegotzi bat irabazita

## Beatriz Unzuek jarraituko du alkate koalizio abertzaleak 8 zinegotzi eskuratu eta gero; EAJk bat galdu eta 4 izango ditu eta daukan bakarra mantenduko du PSE-EEk

**Jon Miranda**

Amasa-Villabonan atzo ospatutako udal hauteskundeetan EH Bildu izan zen boto gehien bildu zituen alderdia. 1.468 boto eskuratu zituen. Duela lau urte baino 49 gutxiago eta 2011n lortutako markara gerturatu gabe. Koalizio abertzaleak, dena den, irabazi egin du ordezkaritzan eta zortzi zinegotzi eskuratu ditu. EAJk 4 zinegotzi izango ditu, aurreko agintaldian baino bat gutxiago eta mantendu egingo du ordezkaritza PSE-EEk.

Unzuek balorazio positiboa egin zuen atzo behin emaitzak ezagututa: «Oso-oso pozik nago eta harro herri honetaz. Ilusioa eta emozioa sentitu ditut emaitzak jakiterakoan. Beti izaten dugu hobetzeko esperantza eta oraingo honetan lortu dugu. Ikasturtea emaitza onarekin gainditu dugu, herriak hitz egin du eta gurekin dago». Bigarren legealdia egingo du EH Bilduko ordezkariak alkate gisa. EAJko zerrendaburu Eneko Urdangarinek Beatriz Unzue zoriondu zuen atzo iluntzean lortutako emaitzengatik: «Guri botoa eman diguten 665 amasar eta billabonatarrei hitz ematen diegu ez diegula kale egingo, ez zaiela damutuko. Udal gobernuari esan nahi diogu besoak zabalik eta eskuak prest ditugula lanerako. Politika egiteko aro berri bat hasten da». Bost zinegotzi izatetik lau izatera pasako da alderdi jeltzalea eta Urdangarinekin batera Arantzazu Rojo, Ianko Ganboa eta Aitziber San Roman izango dira zinegotzi udalean.

PSE-EEk zinegotzi bakarrarekin jarraituko du Amasa-Villabonako Udalean. 200 botoren bueltan ibili da azkeneko udal hauteskundeetan eta atzokoan 208 eskuratu zituen. Eduardo Gonzalez Vaz PSE-EEko hautagaia izango da ordezkari sozialista bakarra udaletxean. Modu honetara baloratu zituen atzo emaitzak: «Pozik gaude, helburua zinegotzia mantentzea zen eta lortu dugu. Guztia ondo joan da».

Elkarrekin Podemos alderdiak ere aurkeztu du hautagaitza aurten Amasa-Villabonan. 2019an 149 boto lortu zituen alderdi moreak udal hauteskundeetan eta aurten behera egin du botoetan. Atzo 62 boto lortu zituen eta ez ziren nahikoak izan ordezkaritza lortzeko udaletxean.

2011n aurkeztu zuen PPk zerrenda Amasa-Villabonan eta atzoko udal hauteskundeetan ere hautagaitza aurkeztu zuen. 127 boto eskuratu zituen duela hamabi urte eta babesa dezente baxuagoa lortu zuen atzo, 22 boto baino ez, eta beraz, zinegotzirik ez.

### PARTE HARTZEA BEHERA

Atzoko udal hauteskundeetan behera egin zuen parte hartzeak, oro har, Tolosaldean, eta baita Amasa-Villabonan ere. Abstentzioa %41,9koa izan zen atzo, duela lau urte baino ia hamar puntu handiagoa. Olaederra kiroldegian prestatutako bozkalekura jendea eguerdian gerturatu zen gehien.


Olaederra kiroldegiaren atzoko ikuspegia, kiroldegian jarri zituzten hauteskunde mahaiak. J.M.

Udal gobernuan gehiengoz osatu ahal izango du EH Bilduk, hamahiru zinegotzietatik zortzi lortuta. Datozen lau urteetan aurreko agintaldiko ildoari jarraitzeko asmoa du Unzuek. «Bihartik aurrera lanerako prest gaude. Gugan jarri duten konfiantza hori ikusita, herritarrekin batera egingo dugu bidea. Udaleko ateak zabalik egongo dira», esan du EH Bilduko alkategaiak. Bederatzi zinegotzi eskuratu zituen 2011n EH Bilduk, sei 2015ean eta zazpi, berriz, 2019an. Oraingo honetan zortzi izango ditu. Alkatearekin batera zinegotzi izango dira Amasa-Villabonan Xabat Laborde, Irune Alfonso, Eñaut Zelarain, Arantza Lopez, Ander Goikoetxea, Ander Etxeberria eta Eneritz Ugartemendia.

Hamahiru zinegotzik osatuko dute udalbatza Amasa-Villabonan eta datorren ekainaren 17an hartuko dute kargua.

### UDAL HAUTESKUNDEAK

| | |
|---|---|
| EH BILDU | 1.468 |
| EAJ | 665 |
| PSE-EE | 208 |
| ELKARREKIN | 62 |
| PP | 22 |
| ZURIAK | 50 |
| BALIOGABEAK | 36 |

### HAUTETSIAK


**BEATRIZ UNZUE**
EH BILDU



**XABAT LABORDE**
EH BILDU


**IRUNE ALFONSO**
EH BILDU


**EÑAUT ZELARAIN**
EH BILDU


**ARANTZA LOPEZ**
EH BILDU


**ANDER GOIKOETXEA**
EH BILDU


**ANDER ETXEBERRIA**
EH BILDU


**ENERITZ UGARTEMENDIA**
EH BILDU


**ENEKO URDANGARIN**
EAJ


**ARANTZAZU ROJO**
EAJ


**IANKO GANBOA**
EAJ


**AITZIBER SAN ROMAN**
EAJ


**EDUARDO GONZALEZ**
PSE-EE

# EH Bilduk lortu du boto gehien eta EAJk jaitsiera nabarmena izan du

## Oria barrutitik bost eserleku izango ditu Bilduk, hiru EAJk eta bakarra PSE-EE alderdiak; Bilduk aurreko hauteskundeetan baino eserleku bat gehiago eskuratu du




**Erredakzioa**

Foru hauteskundetan eskualdeko lehen indarra EH Bildu izan da, 11.362 boto jasota. Bigarren indarra EAJ izan da 7.378 botorekin, hirugarrena PSE-EE 1.650 botorekin, laugarrena Elkarrekin Podemos 793 botorekin eta bosgarren PP 342 botorekin. Abstentzioak, duela lau urteko hauteskundeekin alderatuta, 7 puntu egin du gora, %38,3koa izan delarik.

EH Bildu indar bozkatuena izan da eta gainera ia 200 boto gehiago lortu ditu, aurreko bozekin alderatuz gero. Duela lau urtekoetan 11.177 boto eskuratu zituen.

EAJ alderdiak izan du galerarik nabarmenena, 2.000 boto baino gehiago jaitsi baita. Duela lau urte 9.492 boto izan zituen.

Hirugarren indarra PSE-EE alderdiak izaten jarraitzen du, baina sozialistek ere jaitsiera nabarmena izan dute. Ia 200 boto galdu dituzte, aurrekoetan 1.838 boto jaso baitzituzten.

Elkarrekin Podemos alderdiari dagokionez, erdira jaitsi da; 1.376 boto jaso zituen duela lau urte, eta atzo 793.

### DUELA LAU URTEKO BOTO KOPURUA

2019ko hauteskundeetan eskualdean EH Bilduk jaso zituen boto gehien batzar nagusietarako, 11.177. Ondorioz, koalizioak lau eserleku eskuratu zituen. EAJ izan zen bigarren indarra 9.492 botorekin, eta beste lau ordezkari lortu zituen. PSE-EE alderdiak 1.838 herritarren babesa jaso zuen eskualdean, eserleku bakarra lortuz, eta Elkarrekin-Podemos izan zen laugarren indarra 1.377 botorekin. Datu horiek kontuan hartuta, Tolosaldeko bi hautetsik eskuratu zuten eserlekua batzar nagusietan, Amaia Azkuek (EH Bildu) eta Jose Ignacio Asensiok (PSE-EE).

### 51 BATZARKIDETIK ESKUALDEKO LAU

Tolosaldeko herritarrek Oria hauteskunde barrutiaren izenean aukeratzen dituzte batzarkideak foru hauteskundeetan, denera 9. Gipuzkoako Batzar Nagusietako 51 eserlekuak 4 hauteskunde barruetan banatzen dira (Donostialdea, Deba-Urola, Bidasoa-Oiartzun eta Oria). Biztanle kopuruaren araberakoa da barruti bakoitzetik aukeratzen den ordezkari kopurua. Azken legealdian eskualdeko bi batzarkide egon dira Gipuzkoako Batzar Nagusietan; Amaia Azkue (EH Bildu) eta Jose Ignacio Asensio (PSE-EE).

Atzoko bozketarako eskualdeko 8 hautagaik aurkeztu zuten euren burua: Olatz Peon, Anton Elosegi eta Rafa Uribarren (EAJ), Joxi Imaz eta Esti Kortejarena (EH Bildu), Jose Ignacio Asensio eta Libe Otegui (PSE-EE) eta Angel Yañez (PP). Azkenean eskualdeak 4 ordezkari izango ditu Gipuzkoako Batzar Nagusietan datozen lau urteetan; Olatz Peon eta Anton Elosegi EAJ alderditik, Joxi Imaz EH Bildutik eta Jose Ignacio Asensio PSE-EE alderditik.

### GIPUZKOAN BILDU NAGUSI

Gipuzkoako Batzar Nagusietarako zenbaketa %99an zegoenean EH Bildu zen lehen indarra 22 eserlekurekin. EAJk, hamazazpi zeuzkan. Foru gobernuari euskeko PPren babesa beharko luke EAJk, betiere PSE-EEren babesarekin batera. Donostian, berriz, botoen %99 zenbatu ondoren, zortzina zinegotzi zeuzkaten EH Bilduk eta EAJk.

atarikideen abantailak
ataria.eus/kideak
Gozatu Atarikide izateagatik komertzio eta ostalaritzan.
*Abantaila paregabeak!*


Komertzio, taberna edo enpresa bat duzula eta abantailak eskaini nahi dizkiozula Atarikideei?
Jarri gurekin harremanetan: **publi@ataria.eus**

| HERRIA | EH BILDU 2023 | EH BILDU 2019 | EAJ 2023 | EAJ 2019 | PSE-EE 2023 | PSE-EE 2019 | PP 2023 | PP 2019 | ELKARREKIN PODEMOS 2023 | ELKARREKIN PODEMOS 2019 | ZURIAK 2023 | ZURIAK 2019 | BALIOG. 2023 | BALIOG. 2019 | ABSTENTZIOA 2023 | ABSTENTZIOA 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Abaltzisketa | 71 | 81 | 62 | 88 | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 | 4 | 8 | 4 | 2 | 2 | 42,74 | 28,85 |
| Aduna | 202 | 162 | 58 | 72 | 2 | 2 | 1 | 0 | 5 | 11 | 19 | 6 | 7 | 6 | 20,54 | 26,97 |
| Albiztur | 62 | 46 | 55 | 84 | 11 | 7 | 0 | 0 | 0 | 7 | 7 | 1 | 0 | 1 | 43,33 | 36,24 |
| Alegia | 463 | 465 | 283 | 329 | 54 | 49 | 5 | 16 | 41 | 46 | 22 | 8 | 20 | 10 | 29,21 | 27,09 |
| Alkiza | 77 | 93 | 59 | 61 | 1 | 4 | 0 | 1 | 1 | 10 | 7 | 4 | 7 | 3 | 40,54 | 31,78 |
| Altzo | 156 | 150 | 46 | 64 | 2 | 2 | 0 | 0 | 10 | 11 | 6 | 5 | 6 | 1 | 34,95 | 28,88 |
| Amasa-Villabona | 1278 | 1347 | 801 | 1092 | 210 | 238 | 36 | 77 | 78 | 169 | 52 | 28 | 29 | 25 | 41,85 | 31,44 |
| Amezketa | 309 | 320 | 156 | 162 | 9 | 5 | 1 | 0 | 12 | 11 | 16 | 15 | 9 | 6 | 30,12 | 26,1 |
| Anoeta | 552 | 534 | 298 | 379 | 66 | 67 | 12 | 11 | 29 | 62 | 18 | 9 | 8 | 14 | 35,79 | 29,6 |
| Asteasu | 398 | 397 | 193 | 217 | 20 | 27 | 6 | 11 | 15 | 36 | 11 | 9 | 13 | 4 | 44,28 | 39,29 |
| Baliarrain | 48 | 40 | 11 | 13 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 5 | 0 | 1 | 2 | 32,32 | 37,78 |
| Belauntza | 58 | 65 | 45 | 57 | 4 | 3 | 2 | 0 | 1 | 3 | 4 | 2 | 2 | 1 | 41,66 | 29,26 |
| Berastegi | 371 | 337 | 199 | 287 | 10 | 12 | 2 | 2 | 5 | 20 | 20 | 11 | 5 | 5 | 30,41 | 21,17 |
| Berrobi | 152 | 144 | 65 | 83 | 23 | 10 | 4 | 5 | 8 | 21 | 11 | 5 | 12 | 8 | 37,04 | 37,74 |
| Bidania-Goiatz | 149 | 156 | 81 | 90 | 3 | 5 | 3 | 3 | 10 | 11 | 10 | 10 | 3 | 6 | 37,32 | 28,32 |
| Elduain | 66 | 80 | 30 | 37 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 3 | 1 | 43,95 | 33,15 |
| Gaztelu | 48 | 43 | 27 | 29 | 3 | 0 | 0 | 0 | 6 | 7 | 0 | 1 | 3 | 3 | 30,4 | 29,06 |
| Hernialde | 64 | 61 | 44 | 62 | 5 | 4 | 0 | 5 | 7 | 7 | 4 | 11 | 3 | 5 | 50,96 | 34,6 |
| Ibarra | 858 | 855 | 540 | 722 | 162 | 231 | 16 | 28 | 82 | 155 | 36 | 15 | 25 | 37 | 44,4 | 34,72 |
| Ikaztegieta | 145 | 145 | 75 | 105 | 9 | 9 | 0 | 3 | 2 | 7 | 4 | 1 | 2 | 2 | 32,28 | 25,27 |
| Irura | 354 | 365 | 251 | 356 | 56 | 64 | 15 | 9 | 20 | 50 | 20 | 13 | 17 | 4 | 41,61 | 31,1 |
| Larraul | 63 | 68 | 27 | 28 | 5 | 2 | 2 | 0 | 6 | 11 | 6 | 4 | 1 | 1 | 42,1 | 38,71 |
| Leaburu-Txarama | 114 | 118 | 48 | 68 | 3 | 3 | 1 | 0 | 3 | 3 | 5 | 4 | 3 | 2 | 36,78 | 27,47 |
| Lizartza | 228 | 271 | 43 | 60 | 2 | 2 | 0 | 1 | 2 | 6 | 5 | 2 | 1 | 3 | 38,64 | 25,6 |
| Orendain | 101 | 85 | 20 | 35 | 0 | 0 | 0 | 0 | 4 | 4 | 0 | 2 | 1 | 0 | 25,73 | 19,23 |
| Orexa | 64 | 71 | 2 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 4 | 0 | 1 | 0 | 16,47 | 14,77 |
| Tolosa | 4287 | 3981 | 3490 | 4402 | 798 | 875 | 211 | 256 | 404 | 628 | 158 | 67 | 123 | 96 | 36,71 | 31,4 |
| Zizurkil | 624 | 697 | 369 | 506 | 191 | 214 | 25 | 19 | 39 | 75 | 26 | 7 | 17 | 5 | 42 | 32,55 |
| GUZTIRA | 11362 | 11177 | 7378 | 9492 | 1650 | 1838 | 342 | 447 | 793 | 1376 | 484 | 245 | 324 | 253 | 38,3 | 31,23 |



## ESKUALDEKO ARGAZKIA

**BERDE ARGIA.** EH Bildu.
**BERDE ILUNA.** EAJ
**GORRIA.** PSE-EE
**BELTZA.** Besteak.
**MOREA.** Elkarrekin Podemos.

## ESKUALDEKO BATZARKIDEAK



**OLATZ PEON**
EAJ



**ANTON ELOSEGI**
EAJ



**JOXI IMAZ**
EH BILDU



**JOSE IGNACIO ASENSIO**
PSE-EE